

NATURA2000 JOKOA

ERANTZUNAK

Txartelak gaika bildu dira eta gai bakoitzeko 9 froga-galdera 1. mailarako eta 4 froga-galdera 2.mailarako egin dira.

Aukerazko galderen erantzun zuzenak kurtsibaz adierazten dira.

Biodibertsitatea

Biodibertsitateari mehatxuak

Biodibertsitatearen baloreak

Zer da natura 2000

Biodibertsitatearekin elkarbizitzen

Natura 2000n eta Natura 2000rentzat lanean

Biodibertsitatea

1. maila

1. Biodibertsitatea...
 - Nire armairuko alkandora mota desberdinak dira.
 - *Denda batetan dagoen gizaki multzoa.*
 - Nire kutxatilako arkatx motak.
 - Auto marka desberdinak.

2. Hurrengo esaldietatik zein ez da zuzena?
 - Baso batean landazabal atlantikoan baino zuhaitz gehiago daude.
 - *Labore bakarrean indibiduo gehiago daudenez, landazabal atlantikoa baino dibertsoagoa da.*
 - Espezie berdina labore bakarrean eta basoa egon daiteke.
 - Landazabal atlantikoa eta labore bakarra gizakiak sortutako bi ekosistema dira.

3. Izenda ezazu biodibertsitateari onura eragiten dion giza ekintza bat
 - Nekazal eta abeltzain jarduera tradizionalak, landazabal atlantikoa, mendiko larreak,... bezalako paisai kulturalak mantentzea laguntzen dute.
 - Arraza autoktonoekin abeltzaintza luze-zabala.

4. Biodibertsitatearekin lotutako 3 kontzeptu adieraz itzazu:

Osasuna, errenta ekonomikoa, bizitza, ondasuna, elkartasuna, identitate ikurrak, bizitza-kalitatea, ongizatea, elkarbizitza, erantzukizuna,...

5. Mimika: biodibertsitatea
6. "Aipatu duzun txori horrek zuretzat lanean dihardu" diote bideoan. Horrekin zer esan nahi du? Nola egiten du lan zuretzat eta guretzat?

Txori horrek intsektuak jaten ditu, eta zu elikatzeko beharrezkoak diren uztak izurriteetatik babesten ditu. Baliteke basoan bizi izatea, eta bere ohiko aktibitatearekin basoaren osasunean eragitea, zuk arnasten duzun airea garbitzen laguntzea, zure etxebizitza suntsitu dezaketen uholde bortitzak saihestea, edo pentsa! zur ziurtatuaren negozio emankorraren oinarri izan daiteke eta zuri lanpostua lortzen lagundu!

Batzuetan, ikerketa lanak ez daude nahi adina aurreratuta, eta beraz, eskaintzen dizkigun beste "zerbitzu" batzuek ez ditugu ezagutzen. Baina txori horrek etorkizunean paira dezakezun gaitz bat sendatzeko elementuren bat izango balu bere organismoan?

Txorria hor baldin badago zerbaitengatik izango da. Batzuetan badakigu zertan eragiten digun, beste batzuetan, aldiz, ez. Horregatik uste dut dagoen lekuan uztea dela onena.

(Horietako erantzun batekin galdera gaindituko zen)

7. Biodibertsitatearen 2 sinonimo:
Dibertsitatea, aldaki biologikoa, aberastasun biologikoa, aberastasun naturala.
8. Esanahiak. BIODIBERTSITATEA, animalia, biologiko, landare eta dibertsitate hitzak erabili gabe.
9. Marraztu: HEZEGUNEA
Ekarpena: Ba al dakizue hezeguneak ekosistema emankorrenak direla? Hemendik gertu bateren bat ezagutzen duzue? Zein? Joaten zarete? Zer egiten duzue bertan? Zuen herriaren barne egongo balitz zer hobetuko zenukete? Nori proposatzen diozue? Zer konpromiso hartzen duzue?

2. maila

10. Ikerlariak Lurrean - milioi 1 espezie kalkulatu dute.
- 30 milioi espezie
- 200 espezie
- Ez dakite espezien kopuru zehatza.

11. Mimika. Oraindik gure ibaietan bizi den eta desagertzeko arriskuan dagoen izaki biziduna. IBAI-KARRAMARROA

12. Marraztu: Basoetan bizi den izaki biziduna: ARRUBIOA

13. Esanahiak. Ibaietan bizi den izaki biziduna: BISOI EUROPEARRA.

Biodibertsitateari mehatxuak

1-maila

14. Landare eta animaliei eragiten dien habitataren galera ...

- *gizakiek bereganatu dugun gunearen ondorioz da.*
- *higaduran galtzen den luraren ondorioz da.*
- *itsaso-mailaren igoerak estaltzen duen luraren ondorioz da.*
- *Lurra uzkuratzen edo txikitzen doalako.*

15. Biodibertsitatearen ikuspuntutik, abere arraza autoktonoak beste espezie berri emankorrangoengatik ordezkatea mesedegarria dela uste al duzu? Esazu arraza autoktonoren bat:

- *Ez, arraza autoktonoak baztertu eta beste espezie emankorrangoengatik ordezkaten bada, beraien desagerpena eragin daitekeelako. Arraza hauek gaixotasunei erresistentzia, ernalkortsun handia, amatasun ezaugarri onak eta biziraupen altua dutelako garrantzitsuak dira, hau da, espezie autoktono hauek jatorrizko inguruari egokituta daude, egoera zaileri eta kalitate gutxiko janariei aurre eginez. Ezaugarri hauek guztiak nekazaritza jasangarri bat gauzatzeko desiragarriak dira.*

- *Betizu eta terreña behiak, Enkarterriko astoa, pottoka, sasi-ardi, azpi-gorri,...*

16. Espezie baten desagerpenak...

- *...izaki bizidun guztiei eragiten gaitu.*
- *...beste izaki bizidunei ez die eragiten, denbora pasa ahala beste espezie bat agertuko baita.*
- *...espezie horri bakarrik eragiten dio.*
- *...desagertu den espeziak elikatzen zen espeziari bakarrik eragiten dio.*

17. Mimika. Biodibertsitateari eragiten dion mehatxu bat da. ESPEZIE INBADITZAILEAK.

18. Esanahiak. Biodibertsitateari eragiten dion mehatxu bat da. HABITATAREN ZATIKETA

- *Batzuetan, natur guneak bata bestetik urrun daude edota, animaliek pasa ezin dituzten errepidez zein hesiez bereizita daude, espezie bereko indibiduen arteko harremanak zailduz.*

19. Azal itzazu biodibertsitatearen galeraren hiru eragile.

- *Espezie inbaditzaileak: maskota edo landare ornamental asko eta asko, hedatu, ihes egin, edota, guk geuk aske utziz gero oso arriskutsuak dira: bertako espezieak ordezkatzeko.*

- *Kutsadura: Kutsadurak, lurzoru, aire edota ur kutsadurak habitatak hondatzen ditu eta baita animalia zein basa-landareek bizitzeko behar dituzten baldintzak ere.*

- *Faunari sortutako eragozpenak: Faunari sortutako eragozpenak, batez ere ugalketa sasoian, arriskuan jartzen dute kumaldi eta errunaldien biziraupena.*

- *Habitat galera eta degradazioa, habitat zatiketa eta populazioaren isolamendua, gehiegizko arrantzatzea, itsaso-espezieen ustekabeko harrapaketa, aldaketa klimatikoa,...*

20. Mimika. Biodibertsitateari eragiten dion mehatxu bat da. GEHIEGIZKO ARRANTZATZEA

21. Gaur egun, zein da biodibertsitate galeraren eragile nagusia?

- *Gizakia.*

22. Kutsadurak zerri eragiten dio?

- *Urari.*

- *Aireari.*

- *Lurrari.*

- *Aurreko guztiei.*

2. maila

23. Zergatik dago baso-igel jauzkaria mehatxaturik?

- *Ugaltzeko erabiltzen dituzten urmaelak aldaketak jasaten ari dira.*

- *Ernaltzeko erabiltzen dituzten zuhaixken basoak eta bertako putzuak murrizten doaz.*

- *Pestizidek larben biziraupena aldatzen dute.*

- *Denak ondo daude*

24. Gure lurraldeko bisoi europarraren mehatxu nagusia...

...kutsadura da.

...*espezie inbaditzaileak dira.*

... aldaketa klimatikoa da.

... faunari sortutako eragozpenak

25. Izenda esazu espezie bat, zeini aldaketa klimatikoak eragiten dion:

- *Aldaketa klimatikoak hartz zuriari eragiten dio, poloan urtzea dela eta bere habitata desagerrarazten ari da*

26. Marraztu. Hurrengo animalietatik marraztu zure ikaskideei gaur egun oraindik gure artean (Euskadin) bizi dena:

- Hartz arrea

- Katamotza

- Otsoa

- Mamuta

Biodibertsitatearen baloreak

1. maila

27. Zuhaitz bati ostikoak jotzea gaizki dago...

...hankan min hartu dezakezulako.

...fruitu batek buru gainera erori ahal zaizulako.

... zapatak hautsi ditzakezulako.

... zuhaitzak bizitzeko eskubidea duelako.

28. Izenda itzazu jaki-iturri bezala baloreak dituzten hiru animalia edo landare.

- *Sagarrondoa*

- Atuna
- Oiloa
- ...

29. Espezie batek erreserba genetiko bezala garrantzia duela zer esan nahi du?

Espezie bakoitza naturan elementu bakar bezala jokatzen du, aberastasun hau babestuz soilik lortuko dugu etorkizuneko arazoak konpontzea. (sendagai berriak egin, elikagaiak,...)

30. Mimika. Zuen ikaskideak imitatuko dituen 2 abereetatik zein elikagai lortzen dugu? Ardia (esnea, artilea, haragia,...), erlea (eztia, argizaria, propolia, jelea,...)

31. Esanahia. Balio ekologikoa eta ekonomiko ez zuzena.

Izaki bizidun guztiek naturan zeregin bat dute eta honen oreka espezie guztiak egotearen eta beraien funtzionamendu egokiaren menpe dago.

32. Zume, espartzu edo lihoa bezalako espeziei zein erabilera jasotzen dute?

- Elikagaien ekoizpena
- Arropen ekoizpena
- Sendagaien ekoizpena
- Erabilera estetikoa

33. Ze balore du baso batek?

- Balore ekonomiko zuzena (elikagai-iturri, zura,..)
- Balore estetikoa (mendi-ibiltaritza, paisaiaren behaketa,..)
- Balore etikoak (baso batek bizitzeko eskubidea ere du,...)
- Balore genetikoa (gaur egun erabiltzen ditugun sendagaien gehiengoa landare jatorri dute. Beraz, biodibertsitate hori suntsitzen badugu aurkitzear dauden sendagai berriak ezingo dira asmatu, ezta erabili ere)

34. Naturan zein funtzio ekologiko dute intsektuek?

Europar kultibatzen diren espezien %84 inguru intsektuen polinizazioaren menpekoak dira. Urtero zerbitzu honen balioa 153 milioi eurokoa izan daitekeela kalkulatu dute. Intsekturik gabe, munduko jaki eskaintzak ez lituzke gaur egungo beharrak aseko.

35. Ingurumen baloreei dagokienez, zer dute amankomunean behi bate eta olibondo batek?

Biek elikagai-iturri bezala balio dute.

2. maila

36. Hurrengo esaldietatik zein ez da zuzena?

- Kontsumitzen ditugun elikagai guztiak hobetutako arraza eta espezie basatien eratorriak dira.
- *Arrain deskontaminatzaileak dira petrolio-gordin isurketen kontrako tresnarik eraginkorrenetarikoak.*
- Ozeanoko ur-basoak eta ur- landareak dira instrumenturik eraginkorrenak aldaketa klimatikoaren kontra. Baina beti ere, eraginkorrena gas horiek ez isurtzea izango da.
- Arrantzak urtero 71.500 milioi dolar mugitzen dituen negozioa da, eta honez gain, familia asko eta askoren elikagai eta diru-iturria ere bada.

37. Erakusketan ikasitakoarekin, anfibio batek zein balore eduki dezake izaki bizidunentzat?

- *Ekonomiko zuzena sendagaien ekoizpen bezala (gaixotasun mentalak tratatzeko, anfibio batzuen pozoiarekin lotutako ikerkuntzak burutzen dabilta).*
- *Ekonomiko ez-zuzena edo ekologikoa (anfibioek ekosistemetan eginkizun garrantzitsuak burutzen dituzte, lur- eta ur-inguruneetako elikagaien mugimendua esateko, higadura saihesten dutelarik; harrapakari-harrapakin bezala zeregin nagusi bat dute elikagai-katean eta ezinbestekoak dira ugaztun, narrasti, hegazti, arrainen bizi-iraupenerako).*
- *Estetikoa: gozamina herpetologia zaleentzat (zoologiako adar bat da eta anfibio eta narrastien ikasketetara zuzenduta dago).*
- *Etikoak (animaliek bizitzeko eskubidea dute).*

38. Marraztu. Zuen lagunak marraztuko dituen 2 izaki bizidunetatik, zein sendagai lortzen dugu? Sahats (aspirina), ezki (tila).

39. Zeintzuk dira eskorpioiaren baloreak?

- *Ekonomiko zuzena sendagaien ekoizpen bezala (gaixotasun batzuk sendatzeko, IHESA edo kantzerra beraien artean, eskorpioien pozoiarekin lotutako ikerkuntzak burutzen dabilta).*
- *Ekonomiko ez zuzena edo ekologikoa (eskorpioiak, beste izaki bizidunen antzera, ekosistema baten barne daude, hauek desagertuz gero ekosistema ere desagertuko litzateke).*
- *Estetikoa: gozamina araknologoentzako (araknidoen, eskorpioia barne hartzen duen taldearen, ikerketa zientifikoan diharduten eta zoologiako adar horren adituak dira).*

- Etikoak (animaliek bizitzeko eskubidea dute).

Zer da natura 2000

1. maila

40. Natura 2000 Sarearen xedea...

- *Biodibertsitatearen galera geldiaraztea da.*
- Natura-turismoaren bitartez bertako herriak aberastea da.
- Aldaketa klimatikoari aurre egitea da.
- Industria kutsakorrek desagerraraztea da.

41. Hurrengo ekosistemetatik, zein ez daukagu Euskadin?

- a. Hezegunea
- b. Belardia
- c. *Tundra*
- d. Estuarioa

42. Marraztu. Euskal Herrian adierazgarria den ekosistema bat da eta Natura 2000 Sarearen barne dago: LANDAZABAL ATLANTIKOA

43. Mimika. Euskadin adierazgarria den ekosistema bat da eta Natura 2000 Sarearen barne dago. IBAIA

44. Hurrengo baieztapenetatik, zein da aukera zuzena?

- a. Natura 2000 mundu osoko proiektu bat da.
- b. Natura 2000 gizakia barne hartzen ez duen proiektu bat da.
- c. Natura 2000 industriaren sustapenerako proiektu bat da.
- d. *Natura 2000k pertsonen eta naturaren arteko elkarbizitza orekatua indartzen du, ekosistemen eta bertan bizi diren animalia eta landareen kontserbazioa bermatuz.*

45. Zer babesten du Natura 2000 Sareak?

- a. Mehatxatutako fauna eta landaretza
- b. Fauna eta landaretza, orokorrean
- c. Biodibertsitate osoa (fauna, landaretza, ekosistemak, etab.)
- d. *Aurreko denak*

46. Zein da zure herri edo hiritik hurbilen dagoen Natura 2000 gunea? Zein motatako ekosistema da?

Ekarpena: foroa parte-hartzaile guztientzat zabaltzen da eta ea lekua ezagutzen duten, bertara joan ohi diren, zer egiten duten, eta gunea nola hobetu dezaketen galdetzen zaie; nahi izanez gero, hobekuntzak apuntatu ditzakete Eskolako Agenda 21eko beste proposamenekin batera, udaletxera eramateko. Zer egiten dute beraiek biodibertsitatea kontserbatzeko?

47. Zeintzuk dira Euskal Herrian ur ekosistematik adierazgarrienak?

- *Hezegune, ibai, itsasadar, estuario eta itsas inguruneak.*

48. Natura 2000 proiektua...

- a. ...amaitu den proiektua da.
- b. ...Espainian izan ezik, beste herrialde guztietan amaitu den proiektua da.
- c. ...*garatzen jarraitzen den proiektua da.*
- d. ...jada bere xedea burutu duen proiektua da.

2. maila

49. Erakusketan, zer adierazten du igelaren jauziak?

- a. *Natura 2000 proiektuaren faseak denboran zehar.*
- b. Natura 2000 proiektuaren faseak espazioan.
- c. Natura 2000 proiektuaren faseak Euskal Herrian.
- d. Natura 2000 proiektuaren barne dauden ekosistemen eboluzioa.

50. Definizioa- Aipatu ekosistema horretan bizi den animalia edo landare bat.
BASOA

- Pagoa, haritza, ametza, aztorea, gabiraia, biribedarra, *Lathraea clandestina*, muxar grisa, ...

51. Natura 2000 Sareak gauzatzen ari duen faseetako bati "ezagutu kontserbatzeko" izena eman zaio. Zer uste duzu esan nahi duela horrek?

- a. Gure biodibertsitatea ezagutzeko beharrezkoak diren azterketa tekniko eta inbentarioak burutu diren fasea da hau, zer daukagun, non aurkitzen den eta zein den bere kontserbazio egoera jakin ahal izateko.

52. Natura 2000 Sareak gauzatzen ari duen faseetako bati "kudeatu kontserbatzeko" izena eman zaio. Zer uste duzu esan nahi duela horrek?

- a. Gune bakoitzeko kudeaketa plan espezifikoak definitu diren fasea da. Plan hauetan gunearen kontserbazioa bermatzeko bideratuak dauden artezpide eta arautegiak zehazten dira.

Biodibertsitatearekin elkarbizitzen

1. maila

53. Baieztapen hauetatik zein ez da zuzena?

- a. Natura-turismoak populazioa aberasten du
- b. *Natura-turismoak bertako populazioaren exodoa bultzatzen du.*
- c. Natura-turismoak modu jasangarri batean garatuta, biodibertsitatearen kontserbazioan laguntzen du.
- d. Natura-turismoak lanpostuak sortzen ditu.

54. Hurrengo baieztapenetatik, zein ez da zuzena?
- Natura 2000 taldeko proiektu bat da.
 - Natura 2000 garapen aukera berriak eskaintzen dituen proiektua da.
 - Natura 2000 epe laburreko proiektua da.*
 - Natura 2000 gizarte-proiektua da.
55. "Sarean gune baten txertaketa egiten denean, automatikoki bertan azpiegitura proiektuak ezin dira egin" esaldiarekin ados al zaude?
- Esaldia ez da zuzena. Orokorrean, Sarean gune bat txertatzen bada, ez dira debekatzen edozein motatako ekintzak. Natura 2000an azpiegitura berriak egiteko beste araudi batzuk hartu behar dira kontuan.*
56. Marraztu- "CANOPY WALK" (zubi-pasabide bat da zuhaitzen adaburuen gainetik paseatzeko).
57. "Super liburuan" agertzen diren esperientzietatik, zein da gehien gustatzen zaizuna? Modu labur batean kontatu. Zergatik gustatu zaizu?
58. "Natura 2000 Sareak, bertan bizi diren pertsonen ongizatea hobetzeko lan egiten du". Zergatik?
- Gizakia biodibertsitatearen osagai bat delako eta sarearen paisaiak babesten eta zaintzen dituelako.*
59. Natura 2000 Sarearen barne dauden guneetan ...
- ...abeltzaintza jarduera tradizionalak onartzen dira.*
 - ...dimentsio handiko erauzketa jarduerak (harrobiak) onartzen dira.*
 - ...Naturaren kontserbazioarekin bateragarriak diren guztiak edota biodibertsitatea arriskuan jartzen ez duten jarduerak onartzen dira.*
 - ...efektu kutsakorrak dituzten aktibitateak onartzen dira.*
60. Natura-turismoak zein onurak sortzen ditu bertako populazioan?
- Lanpostuak sortzen ditu, diru-iturriak, bertako jendeak gunea modu baikorrago baten balora dezan laguntzen du, bere inguru naturala kontserbatzen laguntzen du, ...*
61. Mimika- Ondoren aipatzen diren lanbideetatik, Natura 2000 guneetan garatzeko bateraezina dena aukeratu behar duzu: sukaldaria, meatzaria, nekazaria, abeltzaina, ostalaria, arotza, iturgina, hezitzailea, gida.
- Meatzaria*

2. maila

62. Marraztu. Nafarroako Arga eta Aragoi ibaietan burututako ekintzek (urbazter eta meandro abandonatuen berreskuratzea) lagundu duten animalia.
- Bisoia europarra*

63. Ebroko Deltan, zein ekintza burutzen ari dira nekazaritzaren inguruan?
Nekazariak laguntzak jasotzen dituzte arroza ekologikoa ekoizteko, nekazaritza ekologikoak biodibertsitatearen kontserbazio eta berreskuratzean laguntza handia eskaintzen duelako eta modu honetan Deltako habitat naturalen berreskuratzea laguntzen dute.

64. Natura 2000 Sarean, eta konkretuki Hungariako estepetan, zein ekintzaren bidez lortu zen hegazti migratzaileak igarotzea?

Errestaurazio plan baten bitartez. Plan honek udaberrian dike artifizialak eta ureztatze-kanalak kendu zituen, era honetan, larreek berriro ere uholdeak izango zituzten udaberrian eta horrela, milaka hegazti migratzaileen etorrera ekarri zuen.

Ekarpena: Hemen, Euskal Herrian, Gasteiztik oso hurbil, lurra lantzeko asmoarekin drainatu ziren aspaldiko ur-baltsa batzuk berreskuratu dira. Gunea, Salburua izenaz ezagutzen dena, ekologiaren ikuspuntutik berreskuratu egin da, gaur egun Natura 2000 Sarearen barne dagoelarik.

65. Zein da hariztien egoera Bizkaian eta Gipuzkoan? Arazo hau konpontzeko irtenbideren bat bururatzen al zaizu?

Antzina Gipuzkoa eta Bizkaia estaltzen zituzten basoen %8ak baino gutxiago bizirauten du. Konponbideetako bat baso zaharren birsortzea da.

Natura 2000n eta Natura 2000rentzat lanean

1. maila

66. Zer berezitasun dauka Nafarroako Jauregia Esnekiak enpresak?

- Makina-saltzaile baten bitartez esnea zuzenean kontsumitzaileari saltzen diotela. Zuzenean komertzializatzeko era honetan, bitartekariak desagertzen dira eta abeltzainarentzat, irabaziak handitzen dituelako, zein eroslearentzat, eguneko elikagaiak erostea gero eta zailagoa delako, onuragarria da.

67. Nagusiki zein sektoretara dagokie Natura 2000 Sareko guneetan diharduten ekintzak?

- Lehen sektorera*
- Bigarren sektorea
- Hirugarren sektorea*
- Aurreko guztietara

68. "Edozein natura-turismo ekologikoa da, natur guneetan gauzatzen baita" baieztapena balora ezazue.

- Esaldia ez da zuzena, natura-turismoa ekologikoa izan dadin arau batzuk bete behar ditu, masifikazio ezarena, faunari eragozpenak sortzea saihestea, etab.

69. Nola arrazoituko zenuke hurrengo baieztapena "ekintza ekonomikoek biodibertsitatea kontserbatzea lagundu dezakete"?

- *Baliabideen erabilera egokia gauzatuz, abere arraza autoktonoak babesten eta baloratzen, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoarekin, ingurumen sentsibilizazio eta kontzientziazioa bultzatuz, naturarekin kontaktua indartuz, etab. ekintza ekonomikoak gauzatu ditzakegu, beti ere, biodibertsitatea laguntzen dugun bitartean.*

70. Natura 2000ko ekintzak ekonomikoek nori egiten diote mesede?

- a. Ekintza gauzatzen duen pertsona edo taldeari
- b. Bertako biztanleriari
- c. Biodibertsitateari
- d. *Aurreko guztiei*

71. Adolfo Martinezek zertan egiten du lan?

Terreña behiaren abeltzaintzan egiten du lan, Araba eta Burgoseko behi-arraza autoktono bat da, antzina gurdiak bultzatzeko eta zama astunak garraiatzeko erabiltzen zena.

72. Zein herrialdeetakoak ziren Natura 2000ko bideoan agertzen ziren europar ekintzaileak? Gutxienez izenda ezazue bat.

Polonia, Ingalaterra, Italia, Frantzia, Bulgaria eta Alemania.

73. Mimika. Natura 2000ko guneei lotuta dagoen lanbide bat da: NATURA GIDA.

74. Nekazaritza ekologikoa Natura 2000 proiektuarekin bateragarria da? Zergatik?

Bai, guztiz, ingurune naturala, bertan bizi diren animaliak eta gizakia errespetatzen duelako.

2.maila

75. Marraztu. Natura 2000 Sarearen gune batean egindako produktua da: GAZTA EKOLOGIKOA.

76. Esanahiak. Zuen ikaskideak irakurriko dizuen kontzeptua Natura 2000ekin bateragarria al da? GARAPEN JASANGARRIA

Garapen jasangarria: "egungo beharrak asetzea ziurtatzen duen estrategia multzoa ondorengo belaunaldiek haienak asetzeko ahalmena kolokan jarri gabe". Brundtland Txostena (1987).

Bai, guztiz bateragarriak, azken finean gauza bera bi modu desberdinetan esatea da. Natura 2000n garapena ingurumenarekiko guztiz jasangarria da.

77. Izenda ezazue erakustegiko 3 produktu:

Tapiza, itsaso anforak, ardo ekologikoa, eztia, larru artisautza, kosmetikoak, arroz eta pasta ekologikoak, ..

78. Marraztu. Nola ekoizten da produktu hau? ANFORA

Lehenengo galdera asmatu eta erantzun ondoren, Biodibertsitatearekin bateragarria da?

Artisautza tradizionala eta itsasoaren baliabideak elkartu eta produktu bakarra sortzea. Itsaso anforak, Gata-Nijar lurmuturreko Parke Naturalaren kostaldeko itsas-haztegietan sortutako produktua eskaintzen du. Anforak, ur azpian denbora luzez egoten dira, eta antzina galeoi zaharrek garraiatzen zituzten galdutako anforen itxura hartzen dute. Gaur egun urtero 1000 anfora inguru ekoizten dira, eta Alemania, Frantzia, Italia, Estatu Batuak eta Australia bezalako herrialdeetara esportatzen dituzte.

Bai da bateragarria, ez du inpakturik, ez du kutsatzen eta ekoizpen mugatua dute. Gainera ekintza honek habitataren kontserbazioa laguntzen du.